



DERIOKO UDALA

ADMINISTRARI LAGUNTZAILAREN LANPOSTU BAT HORNITZEKO OINARRIAK ETA DEIALDIAK

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da administrari laguntzailaren lanpostu bat aldi baterako hornitzea, ekainaren 18ko 437/2019 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bitartez onetsitako 2019ko Enplegu Plana garatzeko. Horren bidez, Derio udalerriko herritarren enplegarritasuna sustatu nahi da.

Bigarrena.- Izangaien betebeharrak

1. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea. Bestela, Europar Batasunak hitzartutako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak aplikatuz, langileen joan-etorri librea aplikatzen den estatu bateko nazionala izatea. Halaber, Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartzeko aukera izango dute, zuzenbidez banandurik ez badaude; bai eta seme-alabek eta ezkontidearenek ere, betiere ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, seme-alaba horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin hori baino gehiago izanda, euren kontura bizi badira.

b) 16 urte beteta izatea eta nahitaez erretiroa hartzeko adina ez izatea.

c) Eginkizunak gauzatzeko gaitasun funtzionala izatea.

d) Langabezian egotea, erabat erabilgarri, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea kontratazioaren unean.

e) Derio udalerrian erroldatuta egotea, 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen eta etenik gabe.

f) Lanposturako titulazio hauetakoren bat eduki behar da gutxienez: Eskola Graduatua, Oinarrizko Batxilergoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza- LOGSE, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. Horrez gain, euskarako B2 hizkuntza-eskakizuna eta oinarrizko Microsoft Word programaren IT txartela eduki behar dira.

g) Administrazio publikoen edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoen edozein zerbitzutatik kanporatua izan ez izana diziplina-espeditate baten bitartez, eta ebazpen judizialaren bidez erabat edo modu berezian gaitasungabetua ez egotea enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen taldean edo eskalan sartzeko, edo langileek betetzen zituzten antzeko funtzioak betetzeko. Beste estatu bateko



DERIOKO UDALA

nazionalitatea izanez gero, gaitasungabetua edo antzeko egoera batean ez egotea, eta dagokion estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikoa izatea eragozten duen diziplina-zehapenik edo antzekorik jaso ez izana.

h) Ezintasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sartuta ez egotea, administrazio publikoetako langileen bateraezintasunen gainean indarrean dauden arauetan aurreikusitakoaren arabera.

Izangaia Derio udalerrian bizi dela ulertuko da dagokion errolda-ziurtagiria egiaztatzen badu, eta Derio udalerrian erroldatuta badago 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen eta etenik gabe.

Izangaia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda dagoela ulertuko da, dagokion eskaeran alta emateko eta hura berritzeko agiriaren (DARDE) bidez egiaztatzen badu LAN-ESKATZAILE GISA ALTAN emanda dagoela gutxienez deialdi honetan dagokion eskabide-orria aurkezten duen eguneko antzintasunarekin.

2. Deialdian parte hartu nahi dutenek eskakizun guztiak beteak izan beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako, eta eskakizun horiei eutsi behar diete hautaketa-prozesu osoan.

Hirugarrena.- Garatu beharreko eginkizunak

- Derioko Udalean izapidetutako espediente historikoak biltzea eta eskaneatzea.
- Espediente historikoak tipologiaren arabera sailkatzea, Udalak zehaztutako irizpideei jarraituz.
- Informazioa Udalaren aplikazio informatikoan grabatzea.
- Espediente bakoitzari dagokion dokumentazioa eskaneatzea.
- Informazioa aplikazioan sartzea eta dagokion espedienteari lotzea.
- Datu-baseak osatzea.
- Informazio-paneletan kartelak jartzea.
- Bete beharreko lanpostuarekin lotutako gainerako lanak.

Laugarrena.- Zerbitzu askotarako peoi espezialistaren lanpostua hornitzeko baldintzak

- Kontratu mota: aldi baterako kontratua.
- Lanaldi mota: Lanaldi osoa (% 100).



DERIOKO UDALA

- Kontratuaren iraupena: 6 hilabete.
- Ordainsaria: Derioko Udaleko langileei aplikagarri zaien indarreko Hitzarmenean ezarritakoaren arabera.
- Kontratuan probaldi bat ezarriko da.

Bosgarrena.- Lehiaketa-fasea

Lehiaketa-fasean izangaiek alegatuko dituzten merezimenduak baloratuko dira. Epaimahai Kalifikatzaileak emango ditu puntuazioak, baremo hauen arabera:

A.- Kargupeko familien kopurua: gehienez 1 puntu.

Ezkontide bakoitzeko, diru-sarrerarik jasotzen ez duen etxebizitzan erroldatutako eta etxebizitzan hartutako adingabe eta 26 urtetik beherako seme-alaba bakoitza.	1 puntu
--	---------

Familiaren errolda-ziurtagiriaren eta familia-liburuaren bitartez ziurtatu behar da.

Oharra: Aita edo ama zaindaria ez direnean ere ulertuko da seme-alabak bere kargu daudela, betiere egiaztatzen bada epai irmoaren bidez edo hitzarmen arautzailearen bidez mantenua ordaintzeko betebeharra dutela.

Dagokion epaiaren edo hitzarmen arautzailearen bitartez ziurtatu behar da.

B.- Langabeziaren antzintasuna: gehienez 3 puntu.

Langabeziako antzintasun-denboraren arabera, honako puntu hauek emango dira:

36 hilabetetik gorako antzintasuna langabezian	3 puntu
24-36 hilabeteko antzintasuna langabezian	2 puntu
12-24 hilabeteko antzintasuna langabezian	1 puntu
12 hilabete baino gutxiagoko antzintasuna langabezian	0 puntu

Oharra: Langabeziaren denbora zenbatzeko, aintzat hartuko da azken kontratazioa amaitu zen egunetik igarotako denbora. Kontratazio horrek, gutxienez, 30 egun jarraitu iraun behar izan du; hau da, egun solteko kontratuak edo 30 egunetik beherakoak ez dira aintzat hartuko igarotako denbora zenbatzeko. Horrez gain, kontratazio hori 2019ko irailtik aurrera Gizarte Segurantzako Diruzaintzak igorritako lan-bizitzaren txostenean jaso beharko da.

Gizarte Segurantzako Diruzaintzak 2019ko irailtik aurrera igorritako lan-bizitzaren txostenaren bitartez ziurtatu behar da.



DERIOKO UDALA

C.- Euskara-maila: gehienez 1 puntu.

Euskararen ezagutza-maila egiaztatzen duen titulu ofizialaren arabera, honako puntu hauek emango dira:

C1	1 puntu
----	---------

OHARRA: Euskararen ezagutza-maila handiena ziurtatzen duen titulua baloratuko da bakarrik.

Aitortutako titulu ofizialen bitartez ziurtatu behar da.

D.- Lan-esperientzia antzeko postuetan: gehienez 6 puntu.

Administrari laguntzailearen gisa

Enplegu-programarekin lotutako lanetan administrari laguntzailearen gisa izandako lan-esperientziaren arabera, honako puntu hauek emango dira:

36 hilabetetik gorako esperientzia peoi gisa	6 puntu
24 hilabetetik gorako esperientzia peoi gisa	4 puntu
12 hilabetetik gorako esperientzia peoi gisa	2 puntu

Lan-kontratuen, nominen edo enpresa-ziurtagirien bitartez ziurtatu behar da.

E.- Emakumea izatea: 2 puntu.

F.- Lanpostu bakoitzarekin lotutako prestakuntza: gehienez 3 puntu

Lanposturekin zerikusia duen prestakuntzaren arabera honako puntu hauek emango dira:

Prestakuntza arautua (Unibertsitatea, edo baliokidea)	3 puntu
Prestakuntza arautua (Goi-Mailako Heziketa-Zikloa, edo baliokidea)	2 puntu
Prestakuntza arautua (Erdi-Mailako Heziketa-Zikloa edo baliokidea)	1 puntu
Batxilergoa	0,50 puntu
Lanpostuari dagokion sektoreari buruzko 100 ordu baino gehiagoko prestakuntza ez-arautua (etengabeko prestakuntza, okupazionala eta abar)	0,75 puntu
Lanpostuari dagokion sektoreari buruzko 50 ordu baino	0,50 puntu



DERIOKO UDALA

gehiagoko eta 100 ordu baino gutxiagoko prestakuntza ez-arautua (etengabeko prestakuntza, okupazionala eta abar)	
Lanpostuari dagokion sektoreari buruzko 50 ordu baino gutxiagoko prestakuntza ez-arautua (etengabeko prestakuntza, okupazionala eta abar)	0,25 puntu
Maila aurreratuko IT txartela (batengatik edo aurkeztutako guztiengatik)	0,15 puntu
Oinarrizko IT txartela (batengatik edo aurkeztutako guztiengatik)	0,10 puntu

Ez zaio punturik emango oinarrizko Microsoft Word programaren IT txartela dela eta, hori edukitzea nahitaezko baldintza baita kontratatua izateko.

(Honako hauen bidez egiaztatu beharko da: prestakuntza-tituluak edo -diplomak, eta egin eta gainditutako prestakuntza arautuko titulu ofizialak)

Seigarrena.- Eskaerak egitea eta onartzea

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaeretan adierazi beharko dute izangaiek deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela. Eskaera horiek behar bezala beteta Alkatetzari bidaliko zaizkio eta herritarrentzako arreta bulegoan aurkeztuko dira (udaletxeko GERTUAN bulegoan: Herriko plaza 3) astelehen, asteazken, ostegun eta ostiraletan 08:30etik 15:30era; eta, astearteetan, 08:30etik 18:00etara.

Eskaerak **I. eranskineko** ereduaren arabera egingo dira, eta **honako agiri hauek ere aurkeztuko dira nahitaez:**

- Eskaera-inprimakia beteta eta sinatuta. (I. eranskina).
- Nortasun Agiriaren edo atzerritarren identifikazio-zenbakiaren fotokopia, eta, hala badagokio, lanerako eta egoitzarako baimenak.
- Lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak 2018ko uztailean igorrita.
- Eskola Graduatua, Oinarrizko Batxilergoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza-LOGSE, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.
- Euskarako B2 hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea.



DERIOKO UDALA

- Oinarrizko Microsoft Word programaren IT Txartela.
- Lanbide - eskaeraren alta eta berritzeko agiria (EABA).

Gainera, lehiaketa-fasean merezimenduen baloraziorako, eta nahi duten izangaiek, BORONDATEZKO honako AGIRI hauek aurkeztu ahal izango dituzte:

- Familia-liburuaren fotokopia.
- Familiaren errolda-ziurtagiria; bertan ageriko dira etxebizitza berean erroldatutako familia-unitateko kide guztiak.
- Epai irmoaren edo hitzarmen erregulatzaileraren fotokopia, hala badagokio, izangaia bere kargura dituen familiartekoen mantenua ordaintzera behartzen duena.
- Familia-harreraren ziurtagiriaren edo egintza judizialaren fotokopia.
- Izangaiek eskuratu nahi dituen lanpostuko gaiekin lotutako prestakuntza-ikastaroen tituluaren edo tituluen fotokopia.
- Lan-kontratuen, enpresa-ziurtagirien, nominen edo lan-esperientzia modu frogagarrian ziurtatzen duten agirien fotokopia, eskatutako lanpostuarekin lotutako lanak egin izana adierazten dutenak.

Eskabide-orriarekin batera aurkeztu ez diren merezimendu-ziurtagiriak ez dira onartuko eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero.

Eskabide-orria aurkeztu eta hautaketa-prozesuan parte hartzeak ez dio inolako eskubiderik emango izangai hautatuari, baldin eta baldintzak betetzen ez baditu edo aurkeztutako agirietan zehaztasunik eza edo faltsutasuna antzematen bada.

Izangaiek emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua zein Administrazio honetarako aldi baterako langileak izendatzeko sortzen diren lan-poltsak kudeatzeko baino ez da erabiliko. Fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudia (EB) 2016ko apirilaren 27ko pertsona fisikoen babesari buruzko datu pertsonalak tratatzeko orduan ezarritakoaren arabera egingo da. datu hauen doako zirkulazioa.

Zazpigarrena.- Hautaketa-prozesua

Epaimahai Kalifikatzaileak egingo du hautaketa denboraz eta formaz behar bezala eta nahitaezko agiriekin batera jaso diren eskaeren artean. Epaimahaiak izangaiek aurkeztutako agiriak barematuko dituzte, oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera.



DERIOKO UDALA

Epaimahai Kalifikatzaileak eskumena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, prozesuak era egokian aurrera egin dezan. Beharrezkoa balitz, izangaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, akatsak zuzentzeko edota erreklamazioak egiteko epea emateko aukera baloratuko du.

Zortzigarrena.- Hautaketa-sistema eta prozesuaren garapena

Hautaketa-prozesuak lehiaketa-fase bat izango du. Azken emaitza parte-hartzaileek lehiaketa fasean lortutako puntuen batuketa izango da. Berdinketa egonez gero, berdinketa hausteko lehenengo irizpide gisa, lehentasuna izango dute emakumeek aurkeztutako hautagaitzek, eta bigarren irizpide gisa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistraturik langabezian antzinatean handiena duten izangaiek (Lanbiden inskribaturik egondako aldien txostenean agertzen den azken altaren data hartuko da erreferentziatzat); berdinketak jarraituko balu, hautagai nagusienak izango du lehentasuna.

Bederatzigarrena.- Aurkezteko epea

Eskabide-orriak azaroaren 11tik azaroaren 21era bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Hamargarrena.- Izangaiek onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, jendaurrean jarriko da hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda.

Behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasi eta 3 laneguneko epean, izangaiek zuzenketa- edo erreklamazio-eskabideak aurkeztu ahal izango dituzte hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendaren aurka. Epe hori amaitu ostean, eskubide hori indargabetu eta izangaien zerrendatik kanpo geratuko dira, hala balegokio.

Azkenik, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da lortutako puntuazioarekin. Halaber, lanpostuak betetzeko hautatutako behin-behineko zerrenda ere argitaratuko da.

Baztertutako izangaiek "erreserba-zerrenda"-n geratuko dira.

Zerrenda guztiak, behin-behinekoak eta/edo behin betikoak, www.deriooudala.net web orrian eta Egaz Txorierriren iragarki-taulan argitaratuko dira.



DERioko UDALA

Hamaikagarrena.- Epaimahai Kalifikatzailea

Epaimahai Kalifikatzailea kide anitzeko hautaketa-organo gisa eratuko da, eta honako hauek osatuko dute: Egaz Txorierriko teknikari batek, Derioko Udaleko hiru funtzionariok. Epaimahai Kalifikatzaileko kideen izendapen zehatza barne-mailan egingo da. Epaimahaiko kide guztiek izango dute botoa eta ahotsa izateko eskubidea.

Epaimahaikideek ez dute esku hartuko eta udalburuari jakinaraziko diote Sektore Publikoko Erregimen Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek ezetsi ahal izango ditu dituzte aipatutako legearen 24. artikuluekin bat etorriz aurreko artikuluan aurreikusitako gorabeheraren bat dagoenean. Kasu horretan, ordezkoko bat izendatuko da.

Epaimahai Kalifikatzaileari dagokio hautatzeko lehiaketa garatzea, baloratzea eta kalifikatzea. Epaimahaikideak autonomia osoz arituko dira euren zuhurtzia teknikoan; prozeduraren gardentasunaren eta helburuaren erantzuleak dira, baita proben isilpekotasunaz ere, eta deialdiaren oinarriak eta hautaketa-prozesurako jarritako epeak zorrotz beteko dituzte.

Beharrezkotzat jotzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileak erabaki ahal izango du aholkulari adituak bertaratzea bilkuretara. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza eman besterik ez dute egingo, eta horien arabera arituko dira elkarlanean hautaketa-organoarekin. Hitza izango dute, baina botorik ez. Epaimahai Kalifikatzaileak, egokitzat jotzen badu, epe bat eman ahal izango du akatsak zuzentzeko eta/edo erreklamazioak egiteko, izangaiek aurkeztutako agiriak aztertu ondoren.

Epaimahaiak ebatziko ditu, inolako apelaziorik gabe, deialdi honen oinarriak aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edota erreklamazioak, edo aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa.